


C1eko idazmen-probarako lagungarriak

Zure euskara-maila egiaztatzeko azterketa prestatzen ari den ikasle saiatu horietako bat bazara, segidan duzun jarduerak lagundu egingo dizu.



Bertan, ariketa hauek egin ahal izango dituzu:

- Idazmen-probaren kalifikazioan erabiltzen diren ebaluazio-irizpideak eta adierazleak lotu.
- Idazmen-probari aurre egiteko gomendioak hizpide dituen iritzi-artikuluak irakurri eta galderei erantzun.
- Ikasle baten idazlana: irizpidez irizpide egindako azterketa irakurri.
- Ereduzko idazlana irakurri eta bertan eskainitako baliabideak zeure idatziak hobetzeko kontuan izan.

1.- Zer dakizu idatzizko probak zuzentzeko irizpideei buruz?

C1 mailako idazmen-probaren kalifikazioan erabiltzen diren ebaluazio-irizpideak hauek dira: (parentesi artean, irizpide bakoitzaren ponderazioa, hau da, kalifikazioaren balio osoaren ze portzentaje dagokion bakoitzari. Izan ere, denek ez dute balio bera kalifikazioan):

Egokitasuna	(% 13)
Koherentzia	(% 24)
Kohesioa	(% 17)
Aberastasuna	(% 20)
Zuzentasuna	(% 26)

Segidan dituzu irizpide bakoitzarekin zerikusia duten hainbat adierazle. Saia zaitez horietako bakoitza dagokion irizpidearekin lotzen.

Ebaluazio-irizpideak Adierazleak

Egokitasuna	Hizkuntz baliabide ugari eta era askotakoak erabiltzea, errepikapenak saihestuz
Koherentzia	Puntuazio-markak egoki erabiltzea
Kohesioa	Testuko ideiak behar bezala ordenatzea
Aberastasuna	Hizkuntz arau-hauste sistematikorik ez egitea
Zuzentasuna	Idatzia nori zuzentzen zaion eta zein helburu duen kontuan izatea

2.- Iritzi-artikulua irakurri eta galderei erantzun

Paul Alberdi Sololuze irakasleak gomendio batzuk helarazi nahi izan dizkie C1 eta C2 maila prestatzen ari diren ikasleei ARGIA idatzi berri duen artikuluan.

[Irakurri arretaz testua eta aukeratu galdera bakoitzaren erantzun zuzena.](#)

HABEren azterketetarako gomendio zenbait



[Paul Alberdi Sololuze](#)

2021eko martxoaren 23a

Badatoz. Maiatzaren lehendabiziko astean egingo dira euskara-maila egiaztatzeko HABEren azterketak eta, dataren hurbiltze horrekin, ziur naiz urte-saso honetan inoiz baino ikasle gehiago murgilduko dela ARGIAko orrietan, azken orduko inspirazio –salbazio– bila.

Irakasle roletik, neure harri koxkorra ekarri nahi dut ikasle saiatu horiei guztiei laguntzeko, bereziki C1 eta C2 mailakoei, besteek baino erronka handiagoa baitute aurrean: iaz hirutik batek baino ez zuen lortu bi maila gorenetakoa langa pasatzea.

Titulurako bidean geratu ziren gehienek idazmen-proban egin zuten huts. Horregatik, al bait laburren, eta azterketa idatzian izango dituzten ditxosozko bost parametroak oinarri hartuta, ondo gogoratu beharreko arau batzuk bilduko ditut. Erne, beraz, azterketari-irakurleak.

Egokitasunean, ondo ulertu zein den enuntziatuan planteatutako zeregina eta saiatu hertsiki lotzen eskatutakoari. Testu honetan, esaterako, zuei laguntzea hartu dut egitekotzat eta helburua betetzeko iritzi-artikulu bat idatziko dut, narrazioz baino preskripzio gehiagoz osatua, eta aholku-emailearen roletik. Idatzitakoa balekoa izango da, irakurketa amaitzean laguntza-izpiren bat helarazi badizuet.

Koherentzian, kontu handia izan juntagailu eta antolatzaileekin, garrantzitsuak baitira testuko ideien hurrenkera egokia izan dadin. Hasteko, gogoan izan “lehenik” erabiltzen baduzue, baitezpada “bigarrenik” idatzi beharko duzuela. Horrez gain, ez duzue “bestetik” ipiniko, aurretik “batetik” ipini ezean. Arestiko bi horiek nolabaiteko bikotea osatzen dute. Aurrera egin ezinik geratuz gero, jar ezazue “bestalde”, ia-ia beti funtzionatzen du eta.

Kohesioan, gogoan izan puntuazioari dagozkion urrezko bi arau. Lehenengoa: subjektuaren eta aditzaren artean ez dugu komarik jarriko (“Hori kontuan izateak *(,) berebiziko garrantzia du idazmen-proban”). Bigarrena: aditz nagusiaren eta konpletiboaren artean ere ez dugu komarik jarriko (“HABERen zuzendari nagusiak jakinarazi du *(,) apirilaren 6tik 14ra izango dela izena emateko epea”). Zalantzarik baduzue, ez ezazue komarik jarri, gehiago baitira koma jartzearen arriskuak ez jartzearenak baino.

Aberastasunean, hiztegia eta errepikapenak tentuz zaintzearekin batera, adi ibili hau/hori/hura erreferenteekin. Oro har, elementuaren ordaina aurrez adierazi baduzue (anafora), bigarren gradua erabiliko duzue *aurrez adierazitako *horren* erreferentzia egiteko. Erreferentzia ondoren esango baduzue (katafora), berriz, *ondorengo *hau* lehenengo graduaren bidez jasoko duzue. Anaforak eta kataforak bereiztea lagungarria izango zaizue testuaren zehaztasunean eta aberastasunean.

Zuzentasunean, kalko okerreztan jositako bidean sigi-saga ibili beharko duzue. Zinez asko dira zulora erortzeko arriskuak. Juan Garzia Garmendiaren terminologiari jarraiki, hor ditugu *bezala ustela* (aholkulari *bezala diotsuet), *ezberdin izenondo-a* (azterketan zehar zalantzak *ezberdinak izango dituzuela) edo gerundio narratiboa (bide errazetik jo aurrera, arriskuak hurrengo batean *hartuz). Eta askoz gehiago. Dena izan daiteke kalkoa, esaldiari begiratzen diona nor den.

Bakotxa bere zoroak bizi dau esan zuen Peru Abarkak eta, ez bairik gabe, aztertzaile bakoitzak ere bere obsesioak ditu: urliarena egokitasuna izango da, sandiarena juntagailuen erabilera, berendiarena erreferenteak. Denak ondo egitea komeni zaizue, ez baitago modurik jakiteko zein den zuen azterketa zuzenduko duenaren zoroa.

Idazmen-proba gainditzea zaila izango da, ados, baina ez ezinezkoa. Artikulu hau idatzi duenak lortu zuen, eta testua gogotik larrutuko luke aztertzaile batek baino gehiagok, horretarako parada izanez gero. Ez larritu gehiegi, beraz, eta idatzi konfiantzaz.

Bide batez, honaino iritsi bazarete, gainditzeko benetako trikimailua kontatuko dizuet. Peru Abarka edo antzeko klasikorik aipatzerik baduzue, bidearen zati bat aurreratuko duzue. Tartean, disimuluz, esamolde edo esaeraren bat sartzen baduzue, gainditzeko beste harri koxkortxo bat ekarriko duzue. Zer esanik ez, urlia, sandia, berendia edo antzeko bitxikeriarik aipatuz gero. Memelokeria horiek irakurrita inor ez da ausartuko zure idazlana suspenditzen.

Hala izan bedi. Zorte on azterketari guztioi.

Iturria: argia.eus

Aukera ezazu galdera bakoitzaren erantzun zuzena:

Zein helbururekin idatzi du Paul Alberdi irakasleak bere testua?

- Euskara-irakaslea den aldetik, HABEren azterketak prestatzeko ahaleginean ari diren ikasleei laguntza eskaintzea.
- ARGIAko harpidedunei lagungarri batzuk eskaintzea izan da bere asmo nagusia.
- C1 eta C2 mailako ARGIAko irakurleei hainbat gomendio eskaintzea izan du gogoan.

Zein da, Paul Alberdiren ustez, C1 eta C2 mailako azterketetara aurkeztuko diren ikasleek duten zailtasunik handiena?

- Idatzizko proba zuzentzeko ezarritako hiru parametroetatik batean behintzat langa pasatzea.
- Idazmen-proba gainditzea.
- Idazmen-proban Euskaltzaindiak ezarritako arauak ondo gogoratzea.

Egokitasunari dagokionez, zein da, Paul Alberdiren ustez, ikasleek kontuan hartu behar duten gomendiorik garrantzitsuena?

- Idazten duten testua preskripzio ugari duen iritzi-artikulua izatea.
- Osatzen duten testua, aholku-emailea izanik, irakurlearentzat lagungarria izatea.
- Idazmen-probako zeregina ulertu eta bertan eskatzen denari ondo erantzun behar zaiola.

Koherentziari dagokionez, zein da, Paul Alberdiren ustez, ikasleek kontuan hartu behar duten gomendiorik garrantzitsuena?

- Ikasleek sortzen duten testuan juntagailu eta antolatzaile ugari erabiltzea.
- Testuko ideiak modu egokian antolatuta aurkeztu behar direla.
- Testuko ideien hurrenkera egokia izateko, behar-beharrezkoa dela “lehenik”, “bigarrenik”, “batetik”, “bestetik” eta “bestalde” erabiltzea.

Kohesioari dagokionez, zein da, Paul Alberdiren ustez, ikasleek kontuan hartu behar duten gomendiorik garrantzitsuena?

- Testua puntuatzeko garaian, koma gutxi jarri behar dituztela.
- Puntuazio-markak behar bezala erabiltzeko, nahikoa dela bi arau buruz jakitea.
- Koma asko jartzeak ez duela bermatzen testua behar bezala kohesionatuta egotea.

Aberastasunari dagokionez, zein da, Paul Alberdiren ustez, ikasleek kontuan hartu behar duten gomendiorik garrantzitsuena?

- Testuko hizkuntz baliabideak ugariak eta era askotakoak izateaz gain, *hau/hori/hura* erreferenteak zuzen erabiltzea.
- Testua aberatsa izan dadin, ezinbestekoa da erakusle ugari erabiltzea.
- Anafora eta katafora ugari erabiltzea lagungarria da testu zehatz eta aberatsa osatzeko garaian.

Zuzentasunari dagokionez, zein da, Paul Alberdiren ustez, ikasleek kontuan hartu behar duten gomendiorik garrantzitsuena?

- Gaztelaniaz zuzenak diren molde asko ezin direla bere horretan euskaratu eta berdin-berdin erabili.
- Dena izan daitekeela kalko oker eta ondorioz, saihestezina dela ikasleak zulora erortzea.
- Idatzizko proban kopiaketa galarazita egotea.

Zein da Paul Alberdik bere testuan ikasleei ematen dien azken aholkua?

- Peru Abarkaren liburu guztiak irakurri eta idatzizko proban aipamenen bat egiteko.
- Gehiegi ez estutzeko eta ausardiaz idazteko.
- Idazlanean bitxikeriaren bat kontatzeko.

3.- Ikasle baten idazlana.

Gaia: Pribatutasuna sare sozialetan

Egoera:

Milioika pertsonak erabiltzen dituzte sare sozialak (Facebook, Twitter, Instagram...) harremanetan jarri, txateatu edo beste pertsona batzuei mezuak bidaltzeko. Baina, segurua ote da horrelakoen bitartez informazioa, argazkiak, bideoak... partekatzea?

Eginkizuna:

Idatzi blog batean argitaratzeko moduko artikulua gaiari buruz. Bertan, ohartarazi nolako ondorioak izan ditzakeen horrelako guneetan gure pribatutasuna ez babesteak; eman zure iritzia sare sozialen arduradunek eta erabiltzaileek duten erantzukizunari buruz, eta, azkenik, adierazi zer nolako neurriak har daitezkeen norbere datuak babesteko.

Lagungarriak



Identitate-lapurreta, bankuko datuak, argazki eta bideo pertsonalak zabaldu, xantaia, sexu-erasoak...

Erabiltzaileei buruzko informazio anitza: erosketak, bidaiak, gustuak, iritziak, kezak...

Informazioaz baliatuta, publizitatea bidali.

Herritarrok, gero eta kontrolatuago. Pribatutasuna babesteko lege zorrotzagoak behar?

Ikaslearen jatorrizko idazlana

Dakigun bezala, **gaur egun sare sozialak dira gure bizitzetako zati handi bat** eta lehen ezinezkoa ziruditen gauza asko egiteko balio digute; esate baterako **familia eta lagunekin harremanetan jartzeko, beste pertsona batzuekin txateatzeko eta munduko edozein pertsonarekin komunikatzeko ere**, baina badituzte beraien alde txarrak ere. Geroz eta jende gehiagok galdetzen dio bere buruari ea seguruak diren honelako webgune eta aplikazioak, **zer uste duzu zuk ?**

Ikusi dugunez, sare sozialak arrisku handi bat izan daitezke gure pribatutasunarentzat, eta arazo handiak sor ditzazkete ez badira ondo erabiliak. Honakoak izan daitezke pribatutatsuna ez babestearen ondorioak. Lehenik, kontuan izan behar da, bizitza errealean bezala, bizitza digitalean ere gaizkileak daudela, eta hauek gai dira zure datu pertsonalak lapurtzeko eta hauekin nahi dutena egiteko ere.

Hori gutxi balitz, geroz eta zurrumurru gehiago daude gailu hauen bidez espiatu egiten gaituztela, eta posible da, askotan zure bilaketekin erlazionatutako publizitatea erakusten baitizue.

Nire ustez, sare sozialen arduradunek gure pribazitatearen arduradunak ere dira, izan ere, beraien programatzen dituzte datu pertsonalak jarri ahal izateko aukerak, baina ez dut uste pribatutasun arazo hauen erantzule nagusiak direnik, azken finean sare sozialak enpresak dira, eta beraien helburu nagusia dirua lortzea da, beraz ez zaile gehiegi axola gure pribatutasuna, **nahiz eta askotan honela azaldu berrien bidez.**

Esan bezala, ez dira hauen nagusien ardura gure pribazitate arazoak, baizik eta gureak. Gu gara erabakitzen dugunak sare sozial kontu bat sortzea, eta gu gara askotan presarengatik irakurri gabe termino asko onartzen ditugunak. Gainera, nahiz eta kontu pribatua sortu, askotan jarraitzaile gehiago lortzearren guztiz ezagutzen ez ditugun pertsonak onartzen ditugu jarraitzaile gisa.

Ondorio hauek guztiak kontuan hartuta, hauek ez gertatzeko neurri batzuk pentsatu ditut. Lehenik eta behin, esan bezala, letra txikiko terminoak irakurtzea izango litzateke neurri on bat nire iritziz; hauek irakurriz gero, jakingo dugu sare hauek zer nolako baimenak dituzten gure kontuekiko. Horretaz gain, gomendagarria ikusten dut ezagutzen ez duzun jendea ez onartzea jarraitzaile bezala, eta ez igotzea argazki pertsonalak, ezagutzen duzun jendeak ere horiek hartu baititzake.

Laburbilduz, sare sozialak tresna oso erabilgarri eta entretenigarriak dira gaur egun, baina kontu handiz jokatu behar da beraiekin. Sare hauek oso arriskutsuak izan daitezke norberaren pribazitatearentzat ez badira ondo erabiltzen. **Beraz, esan bezala, ezagutzen ez dugun jendea ez dugu jarraitzailetzat onartu behar, ez ditugu argazki pertsonalak igo behar, eta ez gara engainatzen utzi behar, milaka kontu faltsu baitaude bertan.**

Idazlanean hobetu beharreko ideia edo pasarteak

Testuan bertan hainbat pasarte koloreztatuta daude. Irakurri arretaz bakoitzaren gainean idatzi ditugun oharrak.

Gaur egun sare sozialak dira gure bizitzetako zati handi bat

Idea ez dago behar bezala adierazita: Hobeto, adibidez: “Gaur egun denbora asko eskaintzen diegu sare sozialei” / “Gure gaur egungo bizimoduan ezinbesteko bihurtu dira sare sozialak” / “Gero eta denbora gehiago ematen dugu sare sozialetan”.

familia eta lagunekin harremanetan jartzeko, beste pertsona batzuekin txateatzeko eta munduko edozein pertsonarekin komunikatzeko ere

Zati hau ia hitzez hitz kopiatu du ikasleak eman zaion egoeratik.

zer uste duzu zuk ?

Galdera egin bai, baina agian hobeto legoke bukaeran, iritzia eman eta gero, irakurleak berea idatz dezan blogean.

Ikusi dugunez

Non ikusi dugu? Erreferentzia hau ez da egokia, ikasleak ez baitu oraindik arriskuen inguruko daturik eman.

nahiz eta askotan honela azaldu berrien bidez.

Idea hau ere ez dago behar bezala adierazita. Hobeto: “nahiz eta kontrako mezua zabaltzen duten etengabe, komunikabideetako titularretan”.

Esan bezala, ez dira hauen nagusien ardura gure pribazitate arazoak, baizik eta gureak.

Idea hau errepikatuta dago jada..

Ondorio hauek guztiak kontuan hartuta

Ze ondorio? Ikasleak ez ondoriorik aipatu. Lehenengo lerroetan zer gertatzen den azaldu du, baina horrek ze ondorio dakartzan ez.

Beraz, esan bezala, ezagutzen ez dugun jendea ez dugu jarraitzailetzat onartu behar, ez ditugu argazki pertsonalak igo behar, eta ez gara engainatzen utzi behar, milaka kontu faltsu baitaude bertan.

Idea hauek errepikatuta daude.

Idazlanaren azterketa, irizpidez irizpide

Segidan, berriz, ikaslearen idazlana irizpidez irizpide aztertuko dugu:

1.- Egokitasuna

Eginkizunean eskatutakoari modu egokian erantzun dio: ondorioez ohartarazi du, iritzia eman du eta neurriak proposatu ditu. Dena dela, idazlana blog baterako denik ez da antzematen osatu duen testuan.

2.- Koherentzia

Oro har, ondo antolatu du testuaren egitura eta testua lehen irakurraldian ulertzen da. Hala ere, erreferentzia batzuk ez daude ondo eginda.

3.- Kohesioa


Oro har, ondo lotu ditu ideiak. Puntuazioan, halere, badira hainbat oker.

4.- Aberastasuna

Hauxe da testuaren alderdirik ahulena. Lexikoan, *pribatutasun* hitzaren ordezkioak asmatu ditu ikasleak (hiztegian ez dauden hitzak), hainbat ideia ez ditu behar bezala adierazi eta gainera, ideia batzuk errepikatu egin ditu.

5.- Zuzentasuna

Txikikeria batzuk kenduta, oro har, testu zuzena idatzi du azterketariak.



4.- Idazlanaren moldaketa

Sekuentziari bukaera emateko, segidan duzu ikaslearen idazlan moldatua, hainbat hobekuntza txertatuta. Besteak beste, aurreko atalean proposatutako zenbait aldaketa egin edo antzemandako okerrak zuzentzera bideratutako konponketak proposatu ditugu.

Dakigun bezala, gure gaur egungo bizimoduan ezinbesteko bihurtu dira sare sozialak eta lehen ezinezkoa ziruditen gauza asko egiteko balio digute; esate baterako, gertuko nahiz urrutikoekin komunikatzeko edo lagun berriak egiteko. Baina, era berean, baliabide hauek alde txarrak ere badituzte. Hori dela-eta, gero eta jende gehiagok galdetzen dio bere buruari ea seguruak diren honelako webgune eta aplikazioak.

Nik neuk ere galdera horri erantzun nahi izan diot eta gaurko sarrera honen bidez atera ditudan ondorioen berri emango dizuet hurrengo lerroetan. Izan ere, badakizue segurtasunaren gaiak asko kezkatzen nauela (gogoratu: iazko urtarrileko blog-sarreran ere aipatu nituela segurtasun-arazoak) eta horregatik erabaki dut gai bera bigarren tarte honetara ekartzea.

Garbi dago sare sozialak arriskutsuak izan daitezkeela gure pribatutasunarentzat, eta arazo handiak sor diezazkiguketela ondo erabiltzen ez baditugu. Honakoak izan daitezke geure buruari buruzko informazioa ez babesteak ekar ditzakeen ondorioak. Lehenik, kontuan izan behar da bizitza errealean bezala, bizitza digitalean ere gaizkileak daudela, eta hauek ere gai direla gure datu pertsonalak lapurtu eta hauekin nahi dutena egiteko.

Hori gutxi balitz, gero eta froga gehiago daude gailu hauen bidez zelatatu egiten gaituztela baieztatzen dutenak. Ikusi besterik ez dago askotan gure bilaketekin erlazionatutako zenbat publizitate-iragarki iristen zaizkigun.

Nire ustez, sare sozialen arduradunek gure pribatutasuna gordetzeko erantzukizuna ere badute, besteak beste, beraiek programatzen dituztelako gure datu pertsonalak jasotzeko aukerak. Hala ere, ez dut uste pribatutasun-arazo hauen erantzule nagusiak direnik, azken finean, sare sozialak enpresak dira eta beraien helburu nagusia dirua lortzea da. Beraz, ez zaie gehiegi axola gure pribatutasuna, nahiz eta kontrako mezua zabaltzen duten etengabe komunikabideetako titularretan.

Bestalde, ezin da ukatu geuk erabakitzen dugula sare sozial batean kontu bat sortzea eta geuk onartzen ditugula, askotan presarengatik-edo, irakurri gabe baldintza asko. Gainera, nahiz eta kontu pribatua sortu, sarritan, jarraitzaile gehiago lortzearren, guztiz ezagutzen ez ditugun pertsonak onartzen ditugu jarraitzaile gisa, adibidez, lehen aipatu ditudan gaizkileak izan litezkeenak.

Orain arte esandako guztia kontuan hartuta, gure datuekin gorabeherarik ez izateko neurri batzuk proposatuko ditut segidan. Lehenik eta behin, letra txikiko baldintzak irakurtzea neurri on bat izango litzateke, nire iritziz; hauek irakurriz gero, jakingo dugu sare hauek zer nolako baimenak dituzten gure kontuetan. Horrez gain, gomendagarria ikusten dut ezagutzen ez dugun jendea ez onartzea jarraitzaile bezala. Eta azkenik, komenigarria ikusten dut, baita ere, oso argazki pertsonalak ez igotzea, ezagutzen dugun jendeak zabal baititzake.

Laburbilduz, sare sozialak oso tresna erabilgarri eta entretenigarriak dira gaur egun, baina kontu handiz jokatu behar da beraiekin. Sare hauek ez badira ondo erabiltzen, norberaren eremu pribatuari dagozkion kontuak lau haizetara zabaltzeko arriskua dago-eta.

Honaino nire hausnarketa. Zer uste duzu zuk ? Idatzi zure iradokizuna, oso gustura jasoko dut-eta!

Konpara itzazu ikaslearen jatorrizko idazlana eta honen moldaketa. Aldaketei erreparatu eta kontuan izan zure idatzietarako.

Erantzun-orria

Zer dakizu idatzizko probak zuzentzeko irizpideei buruz?

Ebaluazio-irizpideak **Adierazleak**

Egokitasuna	Idatzia nori zuzentzen zaion eta zein helburu duen kontuan izatea
Koherentzia	Testuko ideiak behar bezala ordenatzea
Kohesioa	Puntuazio-markak egoki erabiltzea
Aberastasuna	Hizkuntz baliabide ugari eta era askotakoak erabiltzea, errepikapenak saihestuz
Zuzentasuna	Hizkuntz arau-hauste sistematikorik ez egitea

Iritzi-artikulua irakurri eta galderei erantzun

Zein helbururekin idatzi du Paul Alberdi irakasleak bere testua?

- ✓ Euskara-irakaslea den aldetik, HABEren azterketak prestatzeko ahaleginean ari diren ikasleei laguntza eskaintzea.
- ✗ ARGIAko harpidedunei lagungarri batzuk eskaintzea izan da bere asmo nagusia.
- ✗ C1 eta C2 mailako ARGIAko irakurleei hainbat gomendio eskaintzea izan du gogoan.

Zein da, Paul Alberdiren ustez, C1 eta C2 mailetako azterketetara aurkeztuko diren ikasleek duten zailtasunik handiena?

- ✗ Idatzizko proba zuzentzeko ezarritako hiru parametroetatik batean behintzat langa pasatzea.
- ✓ Idazmen-proba gainditzea.
- ✗ Idazmen-proban Euskaltzaindiak ezarritako arauak ondo gogoratzea.

Egokitasunari dagokionez, zein da, Paul Alberdiren ustez, ikasleek kontuan hartu behar duten gomendiorik garrantzitsuena?

- ✗ Idazten duten testua preskripzio ugari duen iritzi-artikulua izatea.
- ✗ Osatzen duten testua, aholku-emailea izanik, irakurlearentzat lagungarria izatea.
- ✓ Idazmen-probako zeregina ulertu eta bertan eskatzen denari ondo erantzun behar zaiola.

Erantzun-orria

Koherentziari dagokionez, zein da, Paul Alberdiren ustez, ikasleek kontuan hartu behar duten gomendiorik garrantzitsuena?

- Ikasleek sortzen duten testuan juntagailu eta antolatzaile ugari erabiltzea.
- Testuko ideiak modu egokian antolatuta aurkeztu behar direla.
- Testuko ideien hurrenkera egokia izateko, behar-beharrezkoa dela “lehenik”, “bigarrenik”, “batetik”, “bestetik” eta “bestalde” erabiltzea.

Kohesioari dagokionez, zein da, Paul Alberdiren ustez, ikasleek kontuan hartu behar duten gomendiorik garrantzitsuena?

- Testua puntuatzeko garaian, koma gutxi jarri behar dituztela.
- Puntuazio-markak behar bezala erabiltzeko, nahikoa dela bi arau buruz jakitea.
- Koma asko jartzeak ez duela bermatzen testua behar bezala kohesionatuta egotea.

Aberastasunari dagokionez, zein da, Paul Alberdiren ustez, ikasleek kontuan hartu behar duten gomendiorik garrantzitsuena?

- Testuko hizkuntz baliabideak ugariak eta era askotakoak izateaz gain, *hau/hori/hura* erreferenteak zuzen erabiltzea.
- Testua aberatsa izan dadin, ezinbestekoa da erakusle ugari erabiltzea.
- Anafora eta katafora ugari erabiltzea lagungarria da testu zehatz eta aberatsa osatzeko garaian.

Zuentasunari dagokionez, zein da, Paul Alberdiren ustez, ikasleek kontuan hartu behar duten gomendiorik garrantzitsuena?

- Gaztelaniaz zuzenak diren molde asko ezin direla bere horretan euskaratu eta berdin-berdin erabili.
- Dena izan daitekeela kalko oker eta ondorioz, saihestezina dela ikasleak zulora erortzea.
- Idatzizko proban kopiaketa galarazita egotea.

Zein da Paul Alberdik bere testuan ikasleei ematen dien azken aholkua?

- Peru Abarkaren liburu guztiak irakurri eta idatzizko proban aipamenen bat egiteko.
- Gehiegi ez estutzeko eta ausardiaz idazteko.
- Idazlanean bitxikeriaren bat kontatzeko.